

PEDRO ANTONIO AÑIBARRO-REN
250. URTEURRENA

Areatza, 1998-VII-23

PEDRO ANTONIO AÑIBARRO-REN 250. URTEURRENA

Areatza, 1998-VII-23

*Enrike Etxebarria,
herriko alkatea*

Agur t'erdi eta arratsaldeon Euskaltzaindiko buru eta kide guztioi. Eta baita gure herritar eta bertora etorri zarien guztioi. Guztiok 'ondo etorriak' izan zaitezela Areatzako herrira.

Areatzako herria poztasun haundiagaz aurkitzen jaku gaur honenbeste jakitun eta pertsona ospetsu bere altzoan izateagatik Pedro Antonio Añibarroren 250. urteurrena dala eta.

Bestalde, gogo biziz ospatu gura dogu Pedro Antonio Añibarroren urteurren hau. Eta nik ez dot Añibarroren gramatika, hiztegi eta bestez berbarik egingo, nire burua ez dot horretarako prestatua ikusten eta. Ni baino hobeto prestatuak ditugu gure artean eta jarraian euren berbaldiak entzungo ditugu.

Euskaltzaindiak gure Udalarekin antolatu ditu gaurko eta biharko ekitaldiok P.A. Añibarroren omenez. Guzti-guztioi dinotsuet gure herrian izango dozuela gaur eta bihar zeuen berbaldiak eta ekitaldiak aurrera eroateko toki aproposa. Guk poztasun haundiz ikusten ditugu ekitaldiok.

Beraz, guzti-guztioi ondo etorria emon gura deusuegu eta Pedro Antonio Añibarroren ohorez egingo diren ekitaldioi hasiera emongo deutsegu. Besterik ez.

PEDRO ANTONIO AÑIBARRO: 250. URTEMUGA

Areatza, 1998-VII-23

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Areatzako alkate jaun agurgarria,
Euskaltzainkideak,
Jaun-andereak, arratsalde on.

Duela zortzi bat hilabete ospatu zenuten Antonio Abbadia-ren Lore Jokoen mendeurrena Davant euskaltzain jauna mintzatu zela orduan gela honetan bertan.

Aurten duela berrehun eta berrogeita hamar urte Areatzan sortu zen egun ohoratzen dugun seme ospetsua Aita Añibarro frantziskotarra. Bizi luzea ukan du euskaltzale honek laurogeita bi urtetan hil izan baita 1830ean. Bizi luze eta emankorra kristautasunaren aldetik eta euskaldungoaren aldetik ere, euskarari eskaini dizkiolaketz orduak eta orduak misiolari bezala eta idazle bezala halaber.

Egia da Zarauzko komentua egokia zela holako lanen egiteko, nahiz garai latzak iragan dituen Aita Añibarrok, bereziki XVIII. mendearen bukaeran, frantses iraultza denboran. Alabainan sartu ziren soldado frantsesak Zarauzko komentuan eta eraman zituzten Frantziara hiru fraide, Aita Añibarro barne, bizpahiru hilabete iragan zituztela espetxean bakea etorri arte.

Orain erruki-garaian sartuak baikara hala nola Chirac presidentea eta apezpiku frantsesak juduen aintzinean, bai eta ere Eltsine jauna berrikitan San Petersburgon, nik ere holako zerbait egin beharko nuke denbora haietan gure arbasoek eginikako aberekerien gatik, Aita Añibarroren biziaz oroiturik.

Bi egun oso iragaiten ditugu Areatzan. Goiz honetan bildu gara gure hileroko bilkuran, aztertuz euskara batuko hiztegia, datorren urtearen amaieran 20.000 hitz nahi ditugula eskaini hiztegi horretan.

Orain ospatuko dugu Aita Añibarro bi mintzaldirekin, Aita Villasante euskaltzainburu ohiarena eta Blanca Urgell Euskal Herriko Unibertsitateko erakaslearena gero. Areatzatarrek hobeki ezagutuko dute Aita Añibarrok zer egin duen bere bizian.

Bihar sartuko gara IV. Gramatika jardunaldietan, Gramatika batzordeak antolatuak, Patxi Altuna eskualtzaina batzorde buru, mintzatuko direlarik Rudolf de Rijk holandarra, Leideneko Unibertsitateko erakaslea, Patxi Goenaga euskaltzaina eta Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazlea, azken honek aurkeztuko duelarik EGLU V. liburukia. Segur naiz eztabaida sakonak sortuko direla biltzarkideen artean hala nola sortu diren jadanik batzordekideen artean.

Alkate jauna, eskerrak nahi dizkizut bihurtu zure harrera onaren gatik. Hartu gaituzu esku zabalekin, oroituko baita luzaz Euskaltzaindia Areatzan ukan duen ongiatorri beroaz. Euskaltzaindiak, ez baitezake bertzerik eskain, eskaintzen dio Areatzari eta denbora berean Euskal Herriari bere lanaren fruitua, hemen gramatikako jardunaldiena.

Berriz ere, alkate jauna, bihotz bihotzetik eskerrik asko.

AITA PEDRO ANTONIO AÑIBARRO (1748-1830)

Areatza, 1998-VII-23

*Luis Villasante,
euskaltzain osoa*

Ehun eta hirurogeita zortzi urte betetzen dira aurtan Aita Pedro Antonio Añibarro hil zenetik. Bizkaiko Villaro edo Areatzan jaioa zen (1748an). Zarauzko gure komentuko herri-misiolari eta euskal idazle ospetsuen artean berau izan zen lehenengoa. Aita Larramendik esango digu Zarauzko misiolariak izan zirela garai hartan euskera bat onartzeko modukoa erabiltzen zuten bakarrak. Baina Añibarro, euskeraz idaztean, ez da beste euskal idazle batzuen morroi galditzen. Idatziko du bizkaieraz, gipuzkeraz eta bai nafarreraz ere. Hiru hauek dira berak euskeraz idaztean erabiliko dituenak, baina berak nafarrera deitzen duena, esango genuke guk gaur lapurtera deitzen duguna dela. Hiru euskalki huek beraz: bizkaiera, gipuzkera eta berak nafarrera deitzen duena, sakonki ezagunak zituen Añibarrok. Lapurdikoa bere izenaz aipatu ordez, Nafarroakoa deitzen du.

Axular bizkaierara itzuli zuen, baina, jakina, orduko egoeragatik argitara gabe gelditu zen gerra zibila eta nahasteengatik, alegia (gure egunotan zati bat azaldu zen RIEV-en). Ez da Aita Larramendiren hitz berrien zale, herri-hizkeraren zale da areago. Eta horretan begi zorrotza zuela erakusten du.

Añibarroren lan argitaragabeak aztertzen direnean, maitekiro eta arretaz idatziak izan direla ikusten da.

* * *

Baina itzul gaitezen Añibarroren bizitza-gorabeherak laburki kontatzera. Zarauzko gure komentuan bazen euskal misiolarien etxea, eta, erdera baztertu gabe, bereziki euskal prediku eta misioak Euskal Herrian egitera emanak ziren fraide haiek. Eta, hain zuzen, Aita Añibarro izango da misiolari horietan lehenengoetakoa. Aita Añibarrok, bada, 1790. urtean eskatzen du eta bai lortzen ere, Zarauzko kolegiara joatea. Eta han egongo da hil arte. Eta handik joaten zen Euskal Herrian zehar predikuak eta misioak ematera.

Urte horiek baino lehen, non egon zen, ordea?

Hautzarotik hasita, esan dezagun ama bilbotarra zuela gure Añibarrok. Aita, bai, Zeanurikoa zuen. Dirudienez, fraide Bilbon sartu zen, San Frantzis-

koren komentuan, eta han egin zituen karrerako estudioak. Garai hartan Kantabriako gure Probintzia lau 'naziotan' banatua zen, hots: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, eta 'Montaña' deitua —Santander, alegia—. Eta probintzien artean gehiegi ez urruntzeko, fraide gazte batzuk beste probintzikoen artera joaten ziren ikaskizunak egitera, eta bai gero irakasle izatera ere: adibidez, bizkaitarrak Gipuzkoara, eta abar. Añibarrok, esate baterako, karrerako azken urteak Arantzazun egin zituen. 1772. urtean apaiz egiten da. Dirudienez 1773. urtean Arantzazun segitzen du 'prolegomenista' bezala. Hemen ezagutu zuen Aita Ubillos. Baina irakasle bezala ez zen, dirudienez, luzaroan egon. Gero Frías-ko (Burgos) *guardián* izendatzen dute. Komentu hau, nahiz eta Gaztelan kokatua egon, Bizkaiko bezala hartzen zen, Kantabriako probintziakoa zelako, noski.

Eta 1790. urtean eskatzen du, eta baita lortu ere, Zarauzko kolegioko izatea. Añibarrok 42 urte zituen orduan, eta hor biziko da hil arte.

Baina Zarautzen sartu ondoren, handik lau urtera Frantziarekin gerra hasien da. Frantsesek Gipuzkoa harrapatzen dute. Zarauzko fraideek ihes egin beharra izan zuten. Baina komentua zaintzeko eta abar, Aita Añibarro eta beste bi gelditzen dira. Frantsesak sartzen direnean, hiruok preso eramaten dituzte Frantziara. Zorionez, sinatu zen bakea, eta Frantziara eraman ziren hirurak aurki bueltatu ziren. Bi hilabetez bakarrik egon ziren Frantzian. Baina urte guti geroago, 1808tik 1814era, beste gerra bat, bortitzagoa, dator, Independentziakoa deitua. Zarauzkook berriz ere irten beharra izan zuten.

Zarauzko kolegioko fraideak Fernando VII.ari guztiz atxikiak izan ziren, eta baita erreboluzioaren etsaiak ere. Ez zen haien artean izan ez frantsesturik eta ez entziklopedistarik, beste leku batzuetan gertatu zen bezala. Zarauzko kolegio honetan fraide oso ospetsuak izan ziren. Adibidez, Aita Palacios, Oñatiko semea. Aita Añibarro zen beronen zuzendari espirituala eta konfesoarea. Eta Aita Palacios honek erderaz egindako bi liburu, Añibarrok euskeraz liburu batean itzuliak atera ziren.

Aita Añibarrarekin batean Zarautzen bizi izan zen Aita Juan Mateo de Zabala ere. Aita Añibarro hil zenean, Zabala horrek egin zuen beronen aipamena etxeko liburuan.

Etxeko bikarioa ere izan zen Añibarro Zarautzen. Eta Zabalak beroni buruz dioenez, langile nekaezina zen, liburuak idazten denbora ematen zuena. Arimen zuzendari izaten ere bai, noski. Komentutik kanpora igarotzen zituen egunak euskara sakonkiago ikasten ematen zituen. Nondik, ordea, ikasten? *Liburu bi-ziengandik*, hots, *baserritarren ezpainetatik*, Mogelek esango lukeen bezala. Eta kontu handia ipintzen zuen entzundako hitzak eskribuz jasotzen: Añibarrok berak esaten digu bere hiztegiaren hitzaurrean.

Aita Añibarrok adiskidetasun mina izan zuen Juan Antonio Mogelekkin, eta bere garaiko beste euskal idazleekin ere izango zuela uste izateko da.

Bere garaian hasten dira batzuk *f*-ren ordeztu *p* erabiltzen. Badirudi bera horretan ez dela ados. Hala dio: ohitura horri kasu egiten badiogu, gure ondorengoek *pedea*, *piela*, *pina* etab. idatziko dute... hau esatean, ordea, ironia puskatzen bat ez ote da nabari?

Bukatzeko, ikus dezagun bere idazlanen kopurua, hiru sailetan partitua:

I Haren bizi denboran argitaratuak

a) *Cristau dotrina... Nafarroaco euscaran Iruñeco ospitalaren kontura agertua.*

Asteteren dotrina da, Iruñean agertua. Ez dakar urterik.

b) *Mixio santuetako kantuak*, San Sebastian, 1803.

c) *Escu liburua, eta berean eguneango cristiñau cereguiñac*, Tolosa, 1802. Berau da Añibarroren obrarik ezagunena eta hainbeste aldiz argitaratua izan dena. Bizkaieraz dago eta bertan ikusten da noraino ezagutzen duen Añibarrok euskararen arima.

II Egilea hil ondoren ateratakoak

a) *Curutze Santearen, Aita Gure etabarren ganeko Eracusaldiak*, Durango, 1879 (bi tomotan).

b) *Geroko gero* (bizkaieraz). Aita Palaciosena izandako ale bat ezagutu zuen Añibarrok eta hori erabili du berak bizkaierazko itzulpen hau egiteko. RIEV-en agertu da 1923ean hasirik, baina 42. kapitulura arte bakarrik.

c) *Catálogo de los pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra*. Zarauzko Libro Becerroan dago katalogo hori. Euskararen mugak noraino heltzen ziren garai hartan jakiteko balio du, besteak beste.

III Argitaragabeak

a) *Voces bascongadas diferenciales de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra*; 461 orrialde. Hitz bakoitza zein euskalkitakoa den esanez. Zarauko komentuan dago (edo zegoen). Ikus beherago, noiz argitaratu den.

b) *Gramática Bascongada*, 234 orrialde. Loiolan dago. Hiru euskalkietako aditza dakar, baita aditz sintetikoa ere, eta hika eta zukako tratamendua. Beraz, hiru euskalkien 'arte' bezala da. Ikus beherago, noiz argitaratu den.

c) *Misionari Euscalduna. Cristau dotrina eta Sermoiac Bizcai-errietan iracasten*. Bi tomo, misioetako sermoiak argitaratzeko prestatuak. Lehen tomoak 498 orrialde ditu eta bigarrenak 442. Añibarrok misioetan predikatzen zituenak argitaratzeko jadanik prestatuak daude bertan, baina ez ziren argitaratu, Espainia barruan zeuden gerrengatik etab.

d) *Nequea arinduric*. Hamabost meditazio Jesus eta Ama Birjinaren saminei buruz, geure gurutzea eramaten ikas dezagun.

e) *Lau Ebanjelioak batera alcarturik*. Lau ebanjelioen konkordia bat. Bizkaieraz dago. M. Pilar Ciarrustak 1991an argitaratua.

f) *Artzai adibideak*. Erljio ezjakintasunaren gaitzari buruz Toledoko Artzapezpiku F. Valerok egindako eskutitz pastoralaren itzulpena. Gure misiolariak gaitz honetaz asko kezkatzen ziren.

Aita Zabalak, Aita Añibarro hil zeneko nota ematean beste liburu bat ere aipatzen du, hots, Loiolako San Iñazioaren liburua Ejerzizioei buruz; baina, di-rudenez, ez zen itzulpen bat, gai horri buruz azalpen batzuk baizik.

g) Harriet-en Gramatikatik hartutako oharrak (Baiona, 1741). Etab.

ERDERAZKOAK:

Benita da Arrizurieta, Zarauzko monja-komentuan hildako monja baten bizitza, santa usaican hildakoa. Iruñeko alaba zen. Beronen bizitza dakar Añi-barrok.

Añibarro hil eta handik urte gutira esklaustrazioa dator, eta karlisten ger-rratea. Esan gabe doa hori dela eta, gure idazle honen lanak galdu ez, baina erdi ahaztuak eta galduak bezala gelditu zirela. Eta azkenik horra Añibarroren liburuak neronek argitaratuak:

a) *Voces Bascongadas diferenciales* (Bilbao, 1963, Caja de Ahorros Viz-caína).

b) *Gramática Bascongada* 1820an idatzia eta nik Bilbon, 1969an argi-taratua.

PEDRO ANTONIO AÑIBARRO, EUSKAL IDAZLE, GRAMATIKALARI ETA HIZTEGIGILE*

Areatzan, 1998-VII-23

*Blanca Urgell,
euskaltzain urgazlea*

250 urte igaro dira Pedro Antonio Añibarro Areatzako herri honetan jaio zenetik. Milurteko baten laurden borobila data ederra da, ziur, inoren omenaldia antolatzeko, batez ere II. mendeurrena frankismoaren garairik ilunenetan (1948an) jausi zela kontuan hartzen badugu.

Duela bi mende pasako areatarrek ezin zuten ezertan ere susmatu, hainbeste denbora igaro eta gero herriko udaletxean haren omenez batuko ginela. Gauzak zeharo aldatu dira ordutik hona Euskal Herrian; eta, haiek ezin igartzeko moduan, aldaketa hau, astiro-astiro egin bada ere, Añibarro bezalako jendeari zor diogu, eurek ipini zituztelako honaino ekarri gaituen bidearen harriak. Euskaldunei oro har eta bizkaitarrei berezi-bereziki euskara maitarazi dieten, euskaraz irakurtzeko gogoa piztu eta lantzeraz gonbidatu dietenen artean Añibarro leku jaso bat irabazita dauka. Omenaldiek, nire ustetan, bi gauzatarako balio dezakete: alde batetik, halako pertsona garaien adibideak eta itzalak euren denboran izan zuten balioa berrizatzeko eta, bestetik, kontuak atera ditzagun, kontzientziako azterketa egin eta haietaz zer dakigun eta zer ez, beren egiteen gainean artean zenbat ikasi dugun eta oraindik egiteko zer dugun finka dezagun.

Idazle baten garrantzia, bera ikertzen eta ezagutzera ematen aritu direnen arabera neur badaiteke, inoiz baino argiago geratzen zaigu Añibarro garrantzi handiko idazlea izan zela, zeren eta bere ikertzaile nagusia, baita bere lan garrantzitsu askoren argitaratzailea ere, ez baita edonor izan, luzaro euskaltzainburua izan den Aita Villasante baizik. Norbaitek esango du, beharbada, biak frantziskotarrak izanik, baita biak bizkaitarrak ere, ez dela harritzekoa A. Villasantek Añibarrorenganako jaidura hori izatea: idaztiak aldamen-aldamenean zituen, eta bere ordenaren lorpenak lau haizeetara zabaltzeko gogorik ere ez bide du falta. Hala eta guztiz ere, esan behar dut lehenik, frantziskotarrek atearik zabal-zabalik dituztela euren artxibuetakoak ikusteko, eta oso pozik hartzen du-

* Lan hau Joseba A. Lakarrak zuzendutako EHUren ikerkuntza proiektuaren barnean kokatzen da.

tela, mende honetan zehar hainbeste aldiz frogatu duten bezala, euren altxorreko zerbait aztertu edota argitaratu nahi lukeen ikertzailea. Eta, bigarrenik, gogoratuko dut Villasanteren joera nagusia lapurterazko liburuak ikertzea izan dela, Axularri buruz egindako lan bikainak lekuko, hain zuzen bere kezka nagusia euskara batua bestetan parerik ia ez zuen lapurtar tradizioaren ekarriaz aberastea izan delako. Nire ustez, idazle bizkaitarren arteik Añibarroengan begiak ipintzea ere bide horretatik doa, hain zuzen Añibarrok hein handi batean bizkaiera bera gaitzen duen literatur hizkera bat eratzen saiatu zelako.

Tamalez, bere izaeraz, baita bere bizitzaz ere, gauza gutxi gorde zaizkigu: beste idazle askorekin gertatu bazaigu, ez da harritzekoa hau berau gertatzea munduarekin lotura gutxi izan zuen frantziskotar xume honekin. Uztail bukaera honetan gogoratzen ari bagara ere, Añibarro 1748ko abenduaren 5ean jaio zen. Bataioko agiriari esker badakigu aita, Antonio Añibarro, eta aitaren familia Zeanurikoak zirela; ama, berriz, María Antonia Ugalde, bilbotarra zen, amama bezala, aitita Zamudiokoa zen bitartean. Aitaren familia Zeanurin bizi zen eta amarena Bilbon: Pedro Antonioren gurasoak izan ziren, beraz, herri honetara aldatu zirenak, lan bila edo bestela. Gazte-gazterik atera zen herritik fraidetze-ko, 16 urterekin-edo, ziurrenik Bilbon frantziskotarrek zeukaten komentura.

Fetxa hotz eta hutsetatik urruntzen den lekukotasun ia bakarra, Aita Zabala euskal idazle eta komentukideak utzi zigun, Añibarroren heriotzaren ondoren ordura arte berak zeraman komentuko *Libro Becerro* delakoan haren hil osteko berri ematerakoan idatzi zituen hitzokina, neuk laburtu eta euskaraz ipinita:

Alfertasunaren etsai handia... Haren langiletasunaren fruitua idatzi zituen 17 lanak dira... 82 urte zituela hil zen, Sakramentu Sainduak hartuta, eta eroapenez pairatu zuen bere azken gaixotasuna, kalentura bularreko kongestioaz batera... 1830eko martxoaren 7an hil zen, goizeko zazpirak laurden gutxitan. Begietako bista sendo eta argi gorde zuen, baita ilea ere aski, nahiz urdindua izan: ez zuen zahartzaroko beste gaixotasunik izan ez tula, eta indarrak zertxobait ahulduta izatea baino.

Gorriak ikusiko zituen Añibarrok Zarautzen. Alde batetik, komentuko biritza gogorra zen; honela kontatzen digu Añibarrok liburu berean komentuaren lehen urteez diharduela:

Probitziako komenturik pobre eta behartsuena zen; eta bertan bizi ziren Observanteek esan ziguten askotan meza ematera Parrokiaara joaten zirela, argizagitarako dirurik ez izanik.

Misiolari Mintegi bihurtu zenean, ez ziren gauzak hobetu, haren menpeko eskualdea txikia baitzen —eta, beraz, diru gutxi emateko gauza— eta misioetan ezer eskatu edo hartzea debekatuta baitzuten:

Kolegio hau beti dabil zorretan: eta jatekoak biltzeko, ongi-egile asko molestatu behar ditugu dirua mailegutuan eman diezaiguten, eta batzuetan ez da nork eman aurkitzen.

Lehenago Burgosen egon zen urteetan, Friaseko komentuan, hango gardiana ere izanik. Gizon heldua zela iritsi zen Zarautzera, 42 urterekin, sasoiari, beraz, han egin behar zuen lan handia egiteko. Komentu hura Larramendiren garaian jadanik oso aipatua zen, zeren eta, Hegoaldeko Euskal Herrian zehar misioak egiteko zeregina izanik, jadanik orduan (Larramendiren oharra 1754koa-edo da) euskaraz ondo-ondo moldatzen ziren predikalari multzo bat biltzea lortu baitzuen. Komentuko artxibategian predikalari hauen erdarazko eta batzuetan euskarazko eskuizkribuak gordetzen dira, nahiz batzuk tamalez oso kaltetuak egon. Euskaldunen artean eta euskaraz lan egin ahal izateak erakarri zuen, ziurrenik, Añibarro Zarautzera. Baina berarekin funtsezko aldaketa bat gertatu zen: euskaldunentzako irakurgaiak prestatzera ausartzen da lehenengoz, eta batzuk argitaratzea ere lortzen du, nahiz idatzi zuen gehiena, bere letra borobil txiki txukunaz betetako milaka orrialde, eskuizkribuan geratu zen. Besterik ez bada, bere adibideaz, gutxienez beste bi fraide gazteagok —A. Mateo Zabala eta A. Juan Kruz Etxeberria— ere lan berari ekitea lortu zuen.

Oso garai txarra izan zen, oro har, ezer argitaratzeko, areago erlijioaz eta euskaraz, frantsesen kontrako gerlak, gobernu aldaketak, etabar zirela eta. Zehazkiago, komentura iritsi eta lau urtetara (1794an) frantsesak Gipuzkoan sartu eta Zarauzko fraideek alde egin zuten komentutik, baina Añibarro eta beste bi etxea zaintzeko utzirik. Frantsesek preso hartu eta Baionara eraman zituzten hirurak, beste erlijioso batzuekin batera, komentuko eukiak lapurtzeko, Añibarroren ustetan. Bi hilabetegarrenean askatu zituzten, beste kalterik gabe. 1808an Independentziaren gerla ospetsua etorri zen, frantsesek ostera Espainia beretu nahian, lehengoan baino arrakasta gehiagorekin, ezaguna denez. Zarautzarrak berriro alde egin beharrean izan ziren, gobernu berriak komentuetatik atera eta beren jaioterrietara bihurtzeko agindu baitzuen. Bakoitzak ahal zuena egin zuen orduan, batzuk etxera eta besteak babesa lortu zuten lekura, Añibarrok Becerroan kontatzen duen bezala, bera nora joan zen esan gabe, ostera. 1809an atera eta 1814an berriro kolegioan bildu ziren, inguruko herritarrek lagundurik lehengo bizitzara itzuliaz.

Bizitzaz eta idazlanez ditugun datuak ez dira elkarrekin errazki ezkontzen, batez ere bigarrenez argitaratuak baino askoz gehiago ez dakigulako. Ziurtasun osoz, Añibarroren euskarazko lan guztia Zarautzen egin zen: 1791n sartu eta hurrengo hamar urteetako berririk ez dugu, baina pentsatzekoa da orduan hasiko zituela, besteren artean, 1802an argitaratu zen *Esku Liburua*, 1803ko *Lora Sorta Espirituala* eta Villasantek, ziurrenik arrazoiz, bere lehen liburutzat jo duen baina datarik adierazi gabe atera zen nafarrerazko dotrina txikia. *Esku Liburua*, bere idazlanik arrakastatsuen, hainbat bider berrargitaratu zen XIX. mendean zehar, bi bider egilea bizi zela, 1821 eta 1827an. Gainerako idatzi gehienak, 1803-1821 tarte hartan, egileak 55-73 urte zituela, koku behar direla uste dut.

Ez noa Añibarroren idazlan guztiak aipatzera, eskura daudenak bakarrik baizik. *Esku-liburua*-ren lehenengo edizioa Hordagok atera zuen facsimilean

(Donostia, 1978); ziurrenik agortuta dago, baina liburutegietan erraz aurkitzen da. *Nekea arindurik*, oso liburu txiki baina, nik uste, Añibarrok idatzitako lanik goxoena, *ASJU* aldizkarian (XXI-1, 1987, 211-263) ikus daiteke, *Lora Sorta Espirituala* (XXII-1, 1988, 7-92) bezala. Arestian, M. Pilar Ciarrustak (Bilbo, 1991) kalera du lehenengoz *Jesu Christoren Lau Evangelioac batera alcarturic*, hau ere gaztelaniatiko itzulpena. Zarauzko misiolarien gorabeheraz gehiago jakin nahi lukeenak, *Libro Becerro* deritzana *Scriptorium Victoriense* aldizkarian (XXI, 1974, 281-330) aurki dezake, Villasantek argitaratua. Beroni zor dizkiogu, halaber, Añibarroren hiztegiaren eta gramatikaren lehenengo argitalpenak, Bilbo, 1963 eta Donostia, 1970 (*ASJU* III, 1969ren separata), hurrenez hurren.

Zarauzko egotaldiak, bertako giroak eta misiolari zereginak azaltzen dute ezerk baino argiago Añibarrok garatu zuen lanaren muina: misioetan ikusitako beharregatik (liburu egokirik eza, elizgizonek sermoiak euskaraz egiteko ziztuzten zailtasunak, etab.) hasten da lanean, baina aldi berean herriz herriko misio haietan aurkitu zuen euskara bizia ikasteko modua, eta handik edan zuen bere idazlanak ontzeko. Leku askotan ibiltzeak euskara biziaren aldakortasuna erakutsi zion, bai, baina honexek batasunaren nolabaiteko kontzeptura eraman zuen: predikatu, ahaleginean herri bakoitzeko eran predikatu behar, baina denentzat izan behar duten liburuak ezin dira halaxe egin, denek ulertzeko eran baizik. Ezinbestean, gainera, bere euskara han-hemen —eta guztiz, beharbada, bizi zen Zarauzko inguruan— entzundako zerez “kutsatuta” geratu zen. *Geroko gero*-aren hitzaurrean honela dio:

Eusqueran eguin dot aleguifa, Bizcaycoari jarraitzeo; baña celan Colegio oneta-coac ain laster gabiltzan Bizcayan cein Guipuzcoan, Araban ta Nafarroco verba eguicune ta itzcuntzetan, utsen batzuc idoroco dozuz, ta orduan ito eguizuz issilic.

Ahalik eta irakurle gehienengana iristeko asmo honek azaltzen du bere es-tiloaren ezaugarrietatik bat, hau da, sinonimo pilaketak, esanahi bereko edo beretsuko hitz edo sintagmak elkarren aldamenean ematea, bata ez bada bestea uler dadin. Adibide bat ipiniko dut niri gehien gustatzen zaidan *Nekea arindurik* liburuxkatik, hain zuzen Somorrostroko meategia —euskal literaturan lehenengoz, oker ez baldin banago— aipatzen duenekoa (eskuizkribuko 13-14. or.):

Nequéc ta crutzéc arima garbituten deuscue, suác urrea leguez ta mea olaco suteguiác leguez. Somorrostroco mea berez lur zati ilun bat da, baña beragaz burriña eguinic ta errementariác landu, garbitu ta limaturic cidar zuri eder bat dirudi. Noc edo cec alan edertu dau? Olaco suác erre, goritu, garbitu ta gabipean colpe gogor lucéc eroan izanác. Au berau eguin daroa ariman neque ta penaren suác, colpe ta castiguác. Cer izango liteque arima ascogaz, crutze ta minen bat ezpaleuqué? Beti uguerturic, motelduric, lur ta autsez beteric, orban ta loiz ziquinduric, becatuz atsi-turic ibilico litequez. Aztuco leuqué Jangoicoa; maitetu munduco atseguifa; eta ifiosbere euren arimétaco ar, aranza ta gríña charrac ilgo ez litequez. Neguco edur-tza ta lei otz andiac бага, lur barruco árrac ilten eztira; ta guero oneec caltetu ta

galduten dituez ereinac, lórac, landarac ta frutúac. Seinchoác, ume chiquiác bere gustu ta erara dabillanean, amaren gomuteric ez dau; baña jazoten bajaco zorigachen bat, amari bertati deituten deutso. Ceimbat galduco litequez nequepeturic, gaissoturic, perseguituric, bearturic, bildurturic, minduric bici ezpalira? Orregaiti Davidec cirautsan Jangoicoari: ó, Jauna, on ta probechu asco eguin deust zuc ni umildu ta bératu izanác. San Pabloc diño Jesu Cristogan bici gura dabenác perse-cuñoac igaro bearco dituala.

Añibarrok nafarreraz eta gipuzkeraz idazten jakin zuen, baina idatzi zituen lan gehienak bizkaieraz daude. Ordurako gipuzkerak halako maila bat erdietsia zuen, Mendiburu eta Kardaberatzen lanekin batez ere. Pentsatzekoa da Bizkaiko herrietan egindako misioetan, bizkaitar elizgizonen kexak jasoko zituela, Mogelek bere bizkaierazko lehen liburuan aipatzen duen bezala, euren fidelei hobeto uler zezaketen euskaran hitz egiteko inolako lagungarririk ez zeukatelako. Mogel eta biak izan ziren literatur bizkaieraren gurasoak, ezaguna denez, nahiz oso bide ezberdinak hautatu zituzten. Biek utzi digute elkarren artean izan zuten eztabaidaren, baita bestalde harreman oso onen berri. Hona Mogelek Añibarrori eskaini zizkion laudoriozko hitzetatik batzuk:

Gura dabenac sinistu Bizcaico eusqueriac ez deusala ecer zor quiputzenai, iracurri begui liburu onec baño leenago urtengo daben neure adisquide andi, ta gauza onétan neure biarlagun leguez eguiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzco Colegio A. San Franciscoco Ordean Misionarijac bizcaitarrentzat atera daben liburu chicar, baña urre guztiac baño gueijago balio dabena. Edirioco dau *Escu-Liburu* onetan Bizcaico eusqueran edertó adierazo leitezala esan biar dirian gauzac verba, nequezaleen aoetan dabilzanacaz. Bizcay barrubarruco semia da bera, ta bere eusquera garbi ta ederrac ezagutu eraguingo dau nun nai icasi leitiala ondo verba eguiten buruba cerbait necatu gura bada. Alperren soluac beti egongo dira bedar chaarrez betiac. Bizcaitar guztiac erosi biar leuquee Liburuclu esan dogun au (*Confesino ona*, Gasteiz, 1803).

Eztabaida, labur bilduz, hautatu behar zen oinarritzko hizkeran zetzan: Mogelek uste zuen hobe zela nork bere herrikoa baliatzea, Añibarrok ahalik eta gehienek ulertzeko modukoan idatzi behar zela uste zuen bitartean. Horretarako, Arratiako hizkera egokiagoa zela zeritzan, *-ija* eta *-uba*-rik gabekoa besteak beste, baina ez zen bertan goxo geratu, eta hura gainerako bizkaitarrentzat arrotz egin zezaketen zenbait ezaugarri (hala nola *u*-ren osteko bokalen itxiera) desagertaraziaz joan zen. Añibarroren idaztankeran, maila guztietan, garapen bat antzematen dugu, bere euskara gero eta trinko, aberats, adierazgarri, ulergarri eta “batuago” —nolabait esateko— egin nahian. Gainerako euskalkien ekarrietara (lexikoan batik bat) zeharo irekia ere badela ahaztu gabe.

Aldaketa lan guztietan zehar hautematen da, eta inoiz esan izan dut honexek balio lezakeela datatu gabe ditugun liburuak datatzeko. Edozelan ere, *Esku Liburua* da honen kontu argienik ematen diguna, eta aldaketa horren azken burua zein izan zen erakusten. Haren ardurapean atera zen bigarren ediziorako (1821) goitik behera berridatzi zuen, grafian hasi eta hiztegian buka.

Alde batetik, tradiziozko grafia punturik arazotsuenetan berriztatu egin zuen, euskararen fonetikari ahalik eta ongiena egokitzeko asmoz: <v> eta <h>ak kendu, <qu>ren ordez <k> lehenengoz erabili, <np> eta <nb> ere lehenengoz, orain <x>az idazten dugun hotsa, lehenagoko <ss> eta <x> zalantzazkoak ordezkaturik, <sh>z irudikatu, etab. Bestetik, morfologian aldaerak bateratzen, baliabide berriak erabiltzen, usadio txarrak zuzentzen, kalakoak zokoratzen, forma osoagoak (*dagigun daigun*-en ordez, esaterako) ezartzen eta txokokeriak arbuizatzen saiatzen da. Hiztegi mailan, berriz, oso nabarmena da mailegu gutxiago erabiltzeko joera; eta, besteak beste, gipuzkerazko sinonimoei lekua egiten die, irakurleen hiztegia aberasteko edota zitezkeen irakurleen kopurua handitzeko asmoz.

Une honetan A. Mateo Zabala berraipatu behar da, Añibarroekin batera “Arratiako eskola” izena daramanaren barruan kokatu ohi dena. Bien asmo eta ideiak bat etorri bide ziren hein handi batean eta, nolana ere, biek idazkera bera edo beretsua erabili zuten ezaugarriak esanguratsuenetan. Lotura argiagoa da hain zuzen *Esku Liburua*-ren bigarren argitalpen hartan, eta pentsa dezakegu Zabalak —*Verbo Regular Bascongado* bere gramatikan erakutsi zuen arauemailetasuna dela eta— zenbait gauza berri eta zenbait aukera egiten lagundu ziokeela.

Añibarroren idatzietan interesgarri eta berezienak hiru direla esango nuke: Axularren *Geroko gero*-aren (beraz, *Gero*-aren bigarren argitalpenaren) itzulpena, *Gramática Bascongada* eta *Voces Bascongadas* hiztegia. Gramatikaren hitzaurrean Añibarrok berak dioskunez, ezinutzizko hirukotetzat zeuzkan: “Con este Arte, Diccionario y Axular, tenía uno quanto necesita para hacerse un excelente bascongado”.

Axularren liburua, bere euskal idazlanik garrantzitsuena da, nire ustez, baita ezezagunetarikoa, oraindik argitaragabe dagoelako, nahiz gerra aurrean Julio de Urquijok *RIE*ven ateratzen hasi (1923-1933). Axular, dakigularik, Larramendik gorairatu zuen lehenengoz Hegoaldean, eta Añibarrok haren gomendioari jarraiki dihardu, hitzaurrean dioskunez. Hona aurkezpena:

Iracurle bizkaitarra, ona emen zeure eskuetan ta zeure euskeran Axularren liburu famaduna. Euskaldunen Ciceronen izenaz izentaturik eta aitaturik ibilli da beti Axular; bada Aita Larramendi euskaldun guztien maixuak diñolez, bere euskerea da ederra, nastubagea, uts-garbia ta ugaria [...]. Beragaitik, diño, euskaldun guztien eskuetan ibilli bear leukela liburu onek.

Añibarrok eutsi egin zion Larramendiren deialdiari eta irakurketa edertzat ezeze erduztat ere eskaini zien bere herritarrei. Lan honek Mogelen *Lavieuxville* dotrina-ren itzulpena (Villasanteren arg., *Euskararen Lekukoak* 14, Bilbo 1987) dakarkigu gogora, biek Iparraldeko liburu bikainen indarra nolabait bizkaierari txertatzeko ados ipini izan balira bezala.

Añibarroren bertsioa Axularrenarekin erkatzea oso lan interesgarria da: edukiaren aldetik, Añibarrok —eta halaxe aitortzen du hitzaurrean— “zenbait gauza” kendu egin zizkion. Ikusi ahal izan dudana, haragizko bekatuekin zerikusia daukan guztia —Axularren garaian askoz lasaia go hitz egiten zuten

halako gauzez— eta Axularrek inoren ahotan jartzen dituen iritzi heretiko zenbait liburutik kanpora utzi zituen. Bestela, noiz hertsiago noiz askeago, gehienbat *Geroko gero*-aren hitzez hitzeko itzulpena egiten saiatzen da. Ez arazorik gabe, ordea. Gogoratu behar dugu ez zeukala lagun ziezaiokeen hiztegirik (Larramendirena erdara-euskara zen, berea bezalaxe); erabil zezakeen gauza bakarra, eta halaxe egin zuen, Martin Harrietek bere gramatikaren ostean (1741) ipini zituen hiztegi txikitxoak ziren. Honegatik, eskuizkribuan zalantzati antzematen dugu zenbait hitzen itzulpenean, baita inoiz edo behin gaizki zeharo okertua.

Edozein aldetik begiratura, lana erraldoia zen, Axularren liburua irakurri duen edozeinek susma dezakeen bezala: haren hiztegi aberatsa, haren perpaus luzeko joskera, haren hitz jokoak eta, hitz batean, haren trebezia galduan ateratzen dira, egia esanda, bizkaierazko itzulpenean, Añibarroren estilo askoz lauagoaren eraginez. Dena dela, Añibarroren estiloa, oro har, irabazian atera zen, gainerako liburuetan Axularren oihartzunak argiak dira eta. Bestalde, ez dago zalantzarik Añibarroren itzulpenak, argitaratuko balitz, gaur ere balio handia izan dezakeela, ez bakarrik sekulako ahalegin baten erakusgarri gisa, ez bakarrik bizkaierazko beste liburu zahar bat ezagutzeko aukera izan dezagun, baizik eta baita Axularrenganako zubi modura ere.

Azpimarratu behar dut, azkenik, ahaztu ohi badugu ere, lapurterak batua-ren eraikuntza baino lehenagoko eraginak izan zituela Hegoaldeko euskara idatzian, eta Añibarroren kasua, batzuetan esan izan denez, ez da bakarra izan, baina bai adierazgarrietakoa.

Hirukotearen beste bi partaideak, gramatika eta hiztegia, inolako zalantzarik gabe apaiz eta bestelako predikalariei zuzenduta daude. Añibarrok —garai haietan euskaraz aritu ziren hainbat elizgizon euskaltzalek bezala— ongi zekien euskaraz egin ezean, eta euskara onean, haziak lur idorrean eroriko zifela, bere artaldea gehienbat euskalduna eta euskalduna bakarrik baitzen. Berak alde honetatik egindako ahaleginak besterentzat ere baliotsuak izan zitezkeelakoan, bada, sermoi bilduma bat prestatu zuen (oraindik argitaragabe dagoen *Misionari Euskalduna* liburu erraldoia), baina hori baino gehiago ere egin zezakeela eman zion buruak, hots, adibideak ez zirela aski, oinarriak eurak ondo ipini behar zirela. Beraz, gramatika modura eta hiztegi modura bildu zituen bere apunteak, ahal bazen moldiztegira eramateko txukunki prestatuak. Ezin izan zen, dakigunez, Villasantek argitaratu dituen arte. Berandutxo egilearen asmoak betetzeko, baina garaiz han bildutako altxorrak denok ezagut ditzagun. Gogoratu Larramendirenen ondoren egiten diren lehenak direla.

Gramatika ez da oso handia: deklinabideari buruzko gauzarik beharrezkoenak jaso ondoren, aditzean ipintzen du arreta guztia, bizkaiera, gipuzkera eta nafarrerazkoa azalduaz, bukaeran izenaren morfologiaz, aditzaren jokabideaz, ahoskeraz, azentuaz eta, joskera mailan, erlatibozko perpausaz atal bana daukalarik. Aditzari garrantzi gehiena emateko arrazoa hitzaurrean aipatzen du, gutxi gorabehera honela esanez: “aditz jokoa menperatuta gero, ez da eus-

karaz beste hizkuntzetan baino ahalegin gehiago egin behar hitzen esanahia ikasteko". Hau da, aditzari zailena eta oinarrikoena zeritzan Añibarrok, Zabala, Astarloa etabarrekin indartuko zen joerari hasiera emanik. Gramatika zeharo deskriptiboa (eta eskematikoa) da, Zabalak egin zuen arauemailearen aldean, aldaera ezberdinak "otro" sarreraren azpian bilduaz. Aztertu gabe dago, nahiz eta euskal gramatikagintzaren historian (Larramendi eta Zabalorekin erkatuaz, adibidez) eta dialektologia diakronikoan (nongo formak aukeratu zituen finkatzen saiatuaz, esaterako) esankizunik baduen.

Hiztegia txikia baina oso aberatsa da. Funtsean, hiru euskalkietako (bizkaiera, gipuzkera eta, oso adiera zabalean, nafarrera) hitz ezberdinak ulertu eta erabili ahal izateko egina da. Hitzaurrean honela azaltzen digu hiztegia biltzera eraman zuen zioa (nik euskaratua):

Euren sermoiez Elizaren mesedetan eta arimen salbazioan hain sailduki da biltzan hainbat elizgizonek, jakinik Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako euskal herrietan misio sailduak zirela-eta egindako ibilaldietan, nire predikuak eraginkorrago izan zitezten, bakoitzean erabiltzen diren hitz bereizgarriak idatziz hartzen aritu naizela, arrenka eskatu eta ziurtatu didate mesede handia egingo diedala argitaratzen badituz, euren onura eta aringarriako.

Beraz, euskal herrietan egindako ostera haietan hartutako oharrez aberastuta dago. Ez da oso handia, Larramendirenaren aldean behinik behin, baina berak dioen bezala "pulpituan aritzeko beharrezkoa izan daitekeen guztia" jasotzen du, baita hori baino askoz gehiago ere. Añibarrok, oinarri gisa, Larramendiren hiztegi handia erabili zuen, hainbat sarreraren erkaketan ezagutzen den bezala: harena irakurri eta hautatu, baita batzuetan hitzak bere ustetan errazagoak-edo eginez egokitu, bere iritzien arabera hitzak euskalkika sailkatu eta bere ohar berriez osatu egin zuen.

Hiztegi honek, beraz, hiru eratako garrantzia dauka, gutxienez: alde batetik, eta bereziki, herriaren ahotik edo bere euskaratik eransten dituen hitzak, sarritan lehenengo lekukotasunak eta ez gutxitan bakarrak baitira. Bestetik, Larramendiri hartu baina egokitu egiten dituenak, batetik bestera izan ziren irizpide eta sentimen aldaketak direla kausa. Eta, azkenik, Larramendiri zegoen-zegoenean kendu zizkionak, zein euskalkitan kokatzen duen aztertzeagatik. Azkuek, hiztegi honen garrantziaz ohartuta, berearen iturri nagusien artean sartu zuen, Duvoisinien hiztegiaren parean adibidez, eta hitz askok Añibarroren hiztegiaren lekukotasuna bakarrik daramate bermetzat. Bidenabar, *Esku Liburua* ere Azkueren iturri garrantzitsuenetako bat izan zen.

Areatzak euskal munduari idazle ona, gramatikagile zintzoa eta hiztegiagile aberatsa batean eskaini dio. Euskal munduak Areatzari zor dio orain haren semearen obrak zaindu, aztertu eta ezagutzera ematea, landatu zuen haziak ez baitute inondik ere haien indarra galdu. Hala izan dadila.